LOTAZILLA
14
Larunbata

Bilbao, 1935

Euzkadi

ARPIDE-SANEURIJA
Bilbao'kua ... ... 9,00 ifko. iru hil.
Bilbao'atazkua ... 11,25 " "
Idazki-itunmena ... 62,00 " urte
Atzerijetakuak ... 112,50 " "

Beldayen itunduba

XXIII urtia || Idazkolea ta Tanakolea: Correo, 17,1.º || 234 Idazkutxa || 17.810 Urrutizkiña || 7.167 zenbakiña

Gayak

URTERO LEZ

Aurten be, urteroko oureari jarraitubaz, Bilbao'ko Euzko-Gastedija'k eta Emakume Abertzale - Batza'k, Miren Sorkunde Orbanbakua'ren aintzazko txadon-jaya eraldu dabe.

Txadon-jai eder au datorren igandera iragari dabe. Eta iragaritako igandiaren goxeko zortzi ta erdijetan, uri onetako Jagoba deunaren eztxadonan ixango da.

Sorkunde Orbanbakua dan Ama Neskutza, Euzko-Gastedijen Zaindari gurena da. Eta ori dala-ta, Euzko-Gastedija'k, Jaunartze orokarakaz euren Zaindari Neskutza aintzalduko dabe, Ama-Neskutza'rentzat aintzalmen eta guztzarik aldintsubena, Bere Seme Jesu'ren Soin Oteunduba oben lari bako gogo garbijetan artutia da-ta.

Beraz datorren igande goxeko Euzko-Gastedijen Jaunartzia ikuskarija ixango da, ta bai aintzagarija be.

Sorkunde Orbanbako Ama Neskutza, aberi-areyuen erpe gaizkiñetatik gaizkatu gagixuz.

PERETXIKUAK

Peretxiko-sendija ugari-ugarija da. Gazteleraz "hongo" ta "seta" ixenakaz ezagututen dira, oneik.

Euzkeraz, baña, ixen mueta asko dabez. Nire jayoterijan eta inguru aretako erijetan be, "peretxikuak" esan daruatsegue: "arautza - peretxikuak", "urdin-peretxikuak", eta abar.

Euzkadi'ko beste leku batzubetan, baña, beste ixen batzukaz ezagututen dabez: "ondo", "oindo", "zuza", "apontu", "kokona", "kurinto", "kukinta" ta geyagogaz, biarba.

Peretxikuak azteko Euzkadi'ko basuak aberats-aberatsak dira ixan be. Eta ori dala-ta, euzkotaren artian, peretxiko-zale asko ikusten dira.

Peretxikuen artian be, baña, beste edozein sendietan lez, onak eta txarak aurkitzen dira. Eta txar orein artian, edendunak be bai.

Beraz peretxiko-batzalia, peretxiko -osatzalia edo peretxikuen gatxa ezagututen dakijana ixan biar da, gexo ori ezagututen eztakijanak batzen dabezan peretxikuak, osasunerako arisku aundikuak ixaten dira-ta.

Peretxiko-endeak eta onein edena ta abar ondo ezagututen dakijan peretxiko-zale bat, Arbeloa'tar Koldobika adizkidia dogu, Bilbao'ko "Excelsius" izpariñgijan "Arbe" ixen-ordiaz gai onetzaz idazkijak-idazki idazten diñarduban idazle trebia.

Peretxiko-gayetzazko idazki irakurgarijoik, EUZKADI izpariñgijan argitaltzeko asmua eban, ixan. Baña gure izpariñgi onetan leku gitxi dagolako -edo, "Excelsius"-en idatzi dauz.

Idazlanoik gazteleraz idatzi ixan dauz. "Arbe" idazle argijaren asmua, baña, beste au da: gustijak euzkeraldu, ta idaztiñotxu baten argitaldutia. Orotarako gauza bat eskatzen dau: lero onelk irakurten dabezan erijetako euzkeldunak, bakotxaren erijan esaten daben eran idatzita, ezagutzen dabezan peretxiko mueta gustijen ixenak, izpariñgi onetara bidaldu dagijezala.

Eskakixun onek, irakurle, ¿eskatzen yatzuben erantzunik ixango ete-dau, ixan? Bayetz uste dogu. ¡Bai bein!

¡ONDIÑO BE...!

Ondiño be Henao-txaideko atso-zorgintxubak Gil Robles'ekin ezkontzia eztau lortu. Ezta, ba, alegiñik egiten eztabelako, ezta zurikeriz goralben aundijak egiten eztautsazalako be.

Arañegungo izpariñgijan, España'ko buru nagusija bai-litzan, argazki ederian erakutsi euskun. Gaxo-gaxuari, baña, zurikeri gusti areik be, okeretara urten eutsoen, Giltxu'kin ezkonduterik ezeban lortu-ta.

Giltxu gastia da ixan be, ta "ministro de Guerra" egin ebenetik bere "pretentziñotxubak" daukazana. Beraz, Giltxuk, Henao-txaideko atso itxusijari, muxin egiten dautso, espan-atzazal-ule ta abar izki-gorriz margoztuten asi danetik ona, atso-muskil au, baztarak iguinduteko baño gauza eztala jari be egin da-ta.

Gil Robles laztanka jango ba'leu be, baña, Maura'tar Mikel, al-ba'leu, al, Areta-Trespaderne'rako bultzi - bidiak apurtu barik laga dautsazan agin-ustel banakakin txikitu ta birindu egingo leuke.

Maura'ri dautsan "arabijua" agirijan iminteko, atzoko izpariñgijan, soñeko gorijaz jantzitako argazki bat argitaltzen dau. Eta argazki ori irigarijagotuteko asmoz, "carnaval"-antzo idunetik bera ezkegita ingi bat imiñi dautso. Eta ingijan idazkun au: "Jefe de partido, parado, con informes, se ofrece para asustar chicos o cargo análogo".

Idazkun bakan oneri begiratuta bariak-bare egin doguz, eta Henao-txaideko atsotxu itxusijaz gomutauta olantxe oldoztu: "¿Los chicos" bakarik? Maura bilduargari orein gerixeak "los chicos" baño geyago, Henao-txaideko atso min-luzetxuba "asustau" ezpa-lei, gero...".

Eta ezta gitxijagorako ixan be. Atso -muskil orek esan ixan dabezanak esanda gero, "asustauta" edo etxeko supazteftxuban sartuta ixil-txilik egoteko be zijorik nalkua dagola esan leike.

Atzoko EUZKADI izpariñgijan, "Bizi naidogu" ixenprudun idazlan zorotzian "Perulara" euzkel-idazle zirikalarijak, "La Kaltzeta Aska" detuten eutsan. Ederto detu eutsala-ta gagoz, atsotxu ori "askara"-begira mustura nundik sartuko baño eztabil ibili be-ta.

Atatu dogun idazki ori, tamalez, neuritik kanpora geratu zalako-edo, "Perulara" ixenpia galdu egin yakan. "La Kaltzeta,,'ren "askara" ez al-zan jausiko... Bestelan, Henao-txaideko atso -zimelak Giltxuk bidaldu dautsan "eregaluben" bat dalakuan iruntziten ba -dau, iruntzi, estari-ziluan geratuko yako, ta...

Uribitarte'tar Ibon.

Deunen bixitzea

Estepan deunaren soin-aurkitzea

DAGONILA-3'GN.

Kisto'ren aldez lenengo bixitzea emon ebanaren gorpuzkiñak estalduta egozan urte luzietan, baña bere morói diranai aintza damotsen Jaungua'k, goraldu-guraz zor yaken deduba emon eutsen. Onori eta Todosi Txikija'ren aldijetan, 415'karen urtian aurkitu eben lenengo zinopearen gorputza.

Jaungua'k adirazten emon eutson Luken jauparijari eta ber-berak atzaldu euskuzan garatiko zertzeladak. Gerkeraz idatzi eban idazki batetik artu daikeguz zeresan gustijok. "Ugutzau-ontzijaren onduan lotan negualari, lana, ba, obeto lagunegikien bere eztxadoneko kistarsi, argi zerutara ikusi neban. Jaupari bati dagokijon soñanzkijaz agure eder bat agertu yatan eta agindu eustan biatu nagijazala uritxu aretako solo batean etzazan deunaen gorputzak. Eta toki obe batean ipiñi dagijazala, be, agindu eustan. Itaundu neutson bera nor zan eta nun ipiñi biar-ixango nebazan gorpuzkin areik.

Gamaliel zala erantzun eustan eta berak irakatsi eutsola zeruko bidia Paul deunari. Bere albuan idoroko nebanaren gorputza, ostera, Estepan deunaren zala. Judarak deun ari bixitzea kendu eutsenian bere solo aretara eruan ebazan aren gorputz-zati garbijak. Bertan eguan bata Nikodema, be. Judaran onen aurka ta kaltez gauza gorija kegin ebezan eta neure etxean jaten emon neutsan il-arte.

Estepan deunaren ondotxuban obiraldu neban."

Gamaliel agure deunaren abotiz entzun ebazan Luken jauparijak gauza oneik eta beriala juan zan Jerosolima urira. Ango Gotzaña'ri edestu eutson gustija. Onen aginduz asi ziran solo aretan deunaen gorputzak biatzen eta lasterr aurkitu ebezan. Siriar izkijekaz idatzirik auxe iñuan arlaban baten ganian: Estepan, Nikodema, Gamaliel. Izpar au edatu zanian juan ziran Jerosolima'ko Gotzaña zan Jon; Sebaste'ko Eleuteri gotzaña, Jeriko urikua eta ingurubetako jaupari ta kistarak.

Estepan deunaren iiobira ureratu ziraneko lura dardar-egin eban eta bere zaurijetatik usain gozoena urten zan. Bertan egozan ikeratu ziran eta Jaungua'ri eskerak egin eutsezan alako alatza bat ikustia laketu eutselako.

Gero etori ziran urijetako gaxuak, erenak eta abar. ¡Axe alatza! Gusti -gustijak osatu ziran eta erenak jauzkaka ebiltzan; gexuak osatu ziran; itsubai atsegin-ixan yaken eguzkijaren argi biguna eta gorak entzun eben uñaen ots samura.

Estepan deunaren gorpuzkiñak ikututen eben gustija garbitzen zan. Argijak berak ezegikezan egin alako alatzak. Jerosolima uri ederera eruan ebezan gorputz areik eta urezko kutxetan gorde ebezan. Todosi Gastia'ren Kostantinopoli urira eruan ebezan gero gorpuzkin areik. Gero Gelasi Doipuruba'ren aldijetan Eroma'ratu ebezan. Eta Laurentzi deunaren eztxadonean emon eutsen tokirik berezijena.

Antxe datzaz orain Estepan lenengo zinopearen gorpuzkiñak eta kistar gustijak oneraspen aundijena dautse. Ixan, be, Kisto'ren gudari zintzo arengarako matetasuna ta itxala gustijak baru -baruban dauke.

BERMEO

ITXASOTIK.—Uin, euri eta axe indartsubakaz aldi luze-luzian etxeratuta egon ondoren itxasoratu dira gure arantzaliak zeozertxu koxuten ba'dabe edo, baño, dana mux. Ezereza.

Aurtengo negubari agiñak erakusten ez-da erez egongo. Otza ta gose antza bai dator ipar aldetik.

IZPAR-BALTZA. — Gexo-minkor ta txar batek ogeratuta eukirik aspaldiz itxi dau bixitza onetan ixaten Jauregi 'tar Balasi abadegai gastiak.

Kastillo-Elexabeitia'ko Kistar-ikastolan egin zituzan bere ikaskixunak. Mutil zur ta apala zan gixaxo au. On-ona. Goiko jaunak detu eutsan biar bada ludi onetan neke ta samin geyago ezeruateko.

Goyan bego adizkide. Lagundu guri be ortik gotik. Agur gero arte.

EDURA.—Solube-galura estalpe zuriz jantzita ikusi dogu. Besigu ta olagor-zaliak poz. Bai bai.

Urkidi.

Euzkotar Umien Aldez

Berdinkerlak

II

"Gizon arek gauza txarak esaten zituan.
... ...
Jaiki egin nintzan entzun nionean."
Francis Jammes. "Cette personne".

Begira umeari berdinkerien bitartez aginduaz ama orek zenbat kalte egin dituan. Lenengoa bere semetxoari bera bezelako, edo beintzat gutxi gora bera bere erara ibiltzen dan mutiltxoa (eta askotan okeragoa) eredutzat begien aurean ipiñi. Ez zuan amak bere semetxoa Andoni'rekin berdindu edo konparatu bear. Urengoan, umeak Andoni'k egiten dituan okerkeriak egin lezazke bere amak ontzat emango ditualakoan.

Bigarengoa: Amaren aginpidea leku txarean gelditu da, umeak gezurtatu dualako. Egia izan baita ba, Andoni ta biak pelota-lekuan egon diralа.

Ama onek, bakar-izketak, alkar-izketak eta berdintza edo konparazioak egin bearean auxe bakar-bakarik egin bear zuau: Neskameak, gaututa umea etxera ekari duanean batere deadarik gabe, ta batere zalapartarik gabe, baña ben-benetan auxe esan: Begira, ume, entzunda zaude ilundu baño len etxera etortzeko, eta ala ere ez zera etori; neskameak juan bear izan du zure bila, bai? ta beriz egin ez dezagun, biar ikastolatik ertetean ogia ta sagara artu ta ez dezu etxetik ertengo. Biar aratsaldean jolasera gabe geldituko zera.

A, eta urengo egunean, samin aundia ba'du ere, "amatxo, ez det geyago egingo ta laga egidazu ba kalera jolasean juaten" erdi negarez eta leun-leun umeak esango ba'dio ere, itsu ta gor bere burua egin, biotzari jaramonik ez, eta biotzak bere zatitxo maite aren aldez, aren! egiten ba'dio ere "Zaude ixilik, biotza" esan, eta atsegunean esandako zigora bete. Esandako era-eran.

Au gogora da'a bai dakit, umeak baño naigabe aundiagoa amak berak artu bear duala ere bai, baña txikitan bi edo iru bider onela gogor egiten baldin ba'dio aundia izango danerako ez-bear asko amak eta umeak aureratuko dituzte.

Izan leike oraindio aratsalde ortan amaren osotasunak beste pruebaren bat igaro bear izatea.

Ziur-ziur nago Andonitxok bere sagara ta ogia artzen dituanean, zigorpean dagon laguntxoaren bila etori bear duala, Ikastolatik erten dutenean alkar aztuta, noski.

Gañera, aratsalde artan izango da erian edo idi-proa, edo San Juan egunean ere bear diran oteak ekartzea, edo itxasontzi beria astilerotik uretara botatzea, edo beste orelako festaren bat. Urtean bein bakarik izan oi dana eta ain zuzen aratsalde artantxe dana.

Baña berdin da. Ama dan amak, umearen negar samiñari eta otoi apalari iaramonik ere egin gabe, bere biotzaren deadarai gor-entzun egin eta bere egin-beara bete bear du.

Bere egin-beara bere seme kutun, bere biotzaren zatitxo areri aziera ona ematea da eta bai dakigu egin-bearak askotan eta geyenetan neketsuak izan oi dirala.

Baña ori gora-bera bete egin bear izaten dira.

ARITOKIETA.

Euzkeldun barrien lanak

!Maitagarria da, Benetan, Burujaubetasuna!

Jaubetasun ikusgaria da aranoarena. Ortzean bere egazkiz astiro kulunkatzen danian, bere azpian edatuten diran sail ta gauza gustien jaube da; iñork aginduten eztautso ta, noranai joan daiteke, eta eguzkiraño be igongo litzakela esan leike. Ankak galtzairua baizen gogorak eta katuenak baizen azkarak dauzan, katamotza be, Apirkako basamortu ta oyanetan, aranoen antzera, jaun eta jaube agertzen da; batezbe orua egiten daunian beragandik inguruko abere gustiak, ikaratuta igesegiten dabe.

Ederagua da, benetan, gizonaren jaubetasuna, bere adimenak mugarik eztaukolako ta, batezbe, goguaz Jaun -Goikoa'ganaño igon daitekelako. Baña, alan da gusti bere, Gizarteko bizitza aztertu-ezkero, amaika makurkeri ikusten doguz.

Ara emen makurkeriaren antzirudi bat. Begiratu daiguzan aranua ta katamotza kaiola baten baruan lotuta. Katamotzak bere anka indartsuakaz kaiola apurtu leikean aren, an, biak guztiz otzan dagoz. ¿Zer dala-ta dagoz orain kaiola baruan aren baketsu ta aren otzan, len ortzean eta basamortuan ain aro ikusten genduzan basapurtiak? Gura daben beste oio ta ardikume, ezlariak jateko emoten dautsezalako eta urdaleko betetasunaz naikua daukelako. Gizonakin beste orenbeste jazoten da sartan.

Oraitio, gizon gustiak eztira onelakuak. Edestiak erakusten dauskuzan eredu batzuen artian, onexek edestuko dautzuedaz.

Antziña, Eroma'ko Bakaldun batek, bere anaia erail eban eta egite itzal ori eginda gero, lege-gizon bateri eskatu eutson bere erailketa aldeztuten idazti bat idatzi egiala. Baña lege-gizon zeatz arek onelan erantzun eutson: "Norbait erailtia eraza da; oraitio, ez da ain eraza egindako erailketa ori aldeztutia eta ez dot nik olakorik egundo egingo."

Beste Bakaldun bat, be, bizi zan Eroma'n, gizon au, ainbestekoak ziran bere arokeria ta andiustea, Jupiter'n soñekoa jantzita igoten zala bere agin-te-aulkira. Bein, Galo, bere gudariari itandu eutson "Zer deritxozu nitzaz?" Eta gudari arek, gizonkiro erantzun eutson: "Ludian dan gizonik barегarena zarala deritxot".

Ara, beste jazokun bat be... Dabil Bakaldunak, bere gudaria zan Urias e'ri emastea ostu eutson, eta ganera Urias, berbera erail eban. Alan da gusti bere, Dabit'en agindupean bizi ziranak etziran auzartuten, itzik be esaten, ori guztiz txarto eguala erakusteko. Orduan Jaun-Goikoa'k, beste inork ezer esaten ez eban ezkero, an bizi zan Natan Igarleari agindu eutson Dabit'en jauregira joan zeitzala-ta, erakutsi egiola Urias'egaz egindako zitalkeria. Joan zan ara Natan eta, David'en aurean egoala, ipuin au edestuten asi yakon:

Uri batean gizon bi bizi ziran eta, euretariko bat oso aberatsa zan, artalde ugariak eta sail aberatsak eukazan; bestea, bariz, gustiz txiroa zan eta ardi bat baño ez eukan, bere semeen artian azi izan zana eta seme bat bai'litz maite ebana. Aberatsak oturuntza bat emon gura izan eutson bere etxera eldu yakon jaun bateri, eta bere artalde ugaritik gura ainbat ardi artu bearean, txiroaren arditxu bakara il eban eta jateko emon eutsan bazkalkideari.

Dabit'ek ipuin ori entzun ebanian, olan egin eban oyu: "Orelakua egin daunak eriotza merezi dau". Eta Orduan Natan'ek adoretsu erantzun eutson: "Zu zara, ba, ori egin daun gizona".

Bear-bearekoa da onelako ereduakaz gogua indartutia, norbere jaubetasuna ondo zaintzeko.

Egia'tar Eramon.

(Bilbao'ko Instituto'ko irugaren ikastaroko ikaslea.)

Gipuzkoa Emakume Abertzale Batza

Uste gendun bezela bai datorzkigu erietatik gure "Pin-pon" txapelketan sartu nai dutenak. Baña gure lengokoan onezko zertzelada batzuk oker eman genitun. Alegia, jokatzeko ereatzaz. Guk esan gabe ere eri geinetan dakizute joku ezagun onen beri, baña, ara igande bakoitzeko jokaldiak nola egin bear diran:

Bikote bakoitzak jokatu beza, adiadibidez ogei, tantora; ta jokaldi abek egin ondoren beste batzuk laburagoak edo beste onenbestekoak, bikote bakoitzean irabazten gelditu diranen artean; onela "eliminatzen" edo kentzen dirala galtzaleak azkeneko bat gelditu dedin arte. Au igande bakoitzean, onela nor geienean irabazten gelditzen dan zenbatuz. Iganderik geien gaile ditunak, berau eriko txapeldun, eta onentzat Aberi Egunerako txartela saritzat. ¿Ulertzen?

Gero geroko sariak. Ea ba emakumak, datorren igandetik ilaren 15'tik garaileak zenbatzen asi, ta aste bakoitzean aben izenak, garailien izenak guri bidaldu, guk ere kontua eraman lezagun.

Baldin oraindik ba'da txapelketa ontan sartu nai duan eririk sartu leike, baña datorren igandetik ekin bearko dute besteak bezela. Gerokoak ez litugu artuko. Orela ba, igande ontan ilaren 15 an sartzen diranak, idatzi bezaigutu datorren astean sartu dirala, ta egindako jokaldian txapeldun nor geratu zitzaiotan; eta ortan jarraitu.

Bai dira etori zaizkigunak alegia, ume-jantziki batzaldirako epea Ilbeltzaren 31 arte luzatzeko, il ontan otarratxo ta beste lanak dituztela-ta. Eske au poz-pozik aintzat artzen degu, ta Ilbeltzaren 31 arte luzatua gelditzen da. Bai dakizute orain, Gabon aureko lanok amaitzean, ekin beste sariketa ontarako josten, ea saridun nortzuk gelditzen zeraten.

Batzordeko.

Jean Barbier

Kepa'ren Praka

Gizon andia zan, benetan, gure Kepa: metro bi garaierakoa (alturakoa) edo urean. Eleizan sartzen zanean, bedar kargea lepoan bai'leroan, toles bi (doble bi) eragin bear izaten eutsazan gorputzari, bere onerako. Osterantzean, kask, tunturumlio eder bat lortuten eban buruan: Moises Igarlearen adaren antzeko tunturr bat.

Gaztetan, "Tambor - Mayor" izaten zan Gorpuzti guztietan, eta Garazi guztitik joaten zan jendea a ikusten. Kasko eder bat buruan ebala — ara bere andiago izateko —, espiiu polit bat kasko erdian, makila zoragari bat eskuetan — erain eta eragin erabiltekо—, burutik eta beatzetaragiño dana ure, zidar eta galartzu (zinta), zerikusikoa izaten zan orduan Kepa!

Baña, Otxalde eta Etxakun'en abestian esanda dagonez:

"Beti gazte ezin egon, asi zan zaartzen",

eta zaartuta, edo beste ezertarako gauza ez zalako, edo-ta beti baizen andi eta garai gelditu zalako bere, eriko endore, eriko alkate egin eben, an nonbait Garazi aldean.

Esan bearekoaz aiztu naz: ogia baño onagoko gizona zala Kepa. Eguno bere ez zan asaratuten, ez eta bere andreagaz bere.

Aor, bada. Biaramonean Behorlegi 'ko eztegu batzutara joan bear ebalako. Elixabet, eriko jostun entzutetsuenak ekarten dautsoz oratzetik arako praka batzuk, erdian araya batgaz bariz, politagoak, baña politagoak! Alakorik an inguruan ordurarte ez zala ikusi, ori gauza jakiña!

"Tambor-Mayor" izaniko sasoe entzutetsu aetako arotasun pizka bat beti bere gelditu egin yakon eta, Kepa'k, artzen dituz prakak, polito, polito, eta ara bere politoago, ba-daroaz, eskilaretan gora, bere gelara.

Ara orain prakak oe ganean. Adizkide! Aek bai prakak! Nok izan dituz eguno alakorik? Ako arayearen zuzena, ako joskurak, ako sakelak, ako botoiak! Eta baruko forua? Abade jaun zaarak idunean erabilten eban "fulartxo" a bere ez zan, ez eta urean bere, a forua baizen gozoa eta guria Behorlegi'n aitatuko yabezak, oraitiño, prakok, Kepa!

Eta Kepa'k, gabero ur berotan sartzean baizen polito, bere ansa luze-luzeak sartzen dituz praketan! Ausiko ba'litzaz orain! Deabru bat!

—"Jesus, Jaungoiko maitea! Zer da au...? O...¡ Zelan liteke, baña...? Ea, garian jasoez...? O! Ankak naiko luze ez ete? Elixabet'ek prakak luzeago egin daustazela? Norentzako egin ete dituz, orezkero...? Mila bi sorgin...! O! O! Elixabet!"

Eta, dana izerditan, ikara otz batek artuta, bere praka luze madarikatuen baruan, eskuakaz garian gorantz egiñez txoriak legez saltoka-saltoka ziarduan Kepa'k. Baña, alperik. Geroago luzeago egiten ekiozala zirudien praka demoriozkuak. O! Elixabet! Elixabet!

Azkenean, gevago burutu (aguantau) ezinik, aldatzen da bariro Kepa, eta bere praka bariak eskuan dituzala, ba-doa eskaratzera. Josten ziarduela, an ziran Joane bere emaztea, eta Miren eta Katalin bere alaba biak.

—"Luzeegi daukodaz!" — "Luzeegi? Zertzuk?" — "Prakak; ara bete gitxienez. Tamala ez ete da? Aren, laburtu egin bear daustazuzez beingoan eta gero aspildurak artu." — "Laburtu? Aspildurak artu?" Ba-dogu obarik, seguru. Eta gure bivarko soñekoak? Ala aiztu zara eztegetara joan bear dogula guk bere, Behorlegi'ra? Elixabet'ek jostea gura izan dozu, ala ta -bere... aor, bada, zeure bizikondoen! Guk geureak legez, zeuk josi egizuz orain zeure prakok!"

Andra mustur mee a, jo egingo genduan zuek eta guk. Kepa, ostera, artu baño ez zan egin; eta alameneko prakak, bertan, eskaratzean itzirik, lotzez gorituta, mutu gelditua, oera joan zan.

Arik ordu bi garenean edo, gauza eta lagun guztiak loak artuta egozala, atetxo bat idegi zan geldika geldika, etxe buruan, eta Andre Joane, artaziak eskuan, eta oratza eta aria atzamaren artean zituzala, beatzen ganean sartu zan eskaratzean. Iñor iratzartu barik bilduñez, zarata txikienik bere egin baga jezari zan, eta krask, artazikada bategaz ara eta erdi gitxienez kendu eutsazan prakari, bere buruari aopean onetara iñotsala: "Kepa gizagaisoa! Ik uste baño andra obeagoa emon euan Jaungoikoak, merezi bere ba-enduan baña!" Joskura batzuk gero, sisti, sasta, eta aor prakak aspildurak artuta, eta aor Andre Joane oean, biaramonerarte ederтosko lo, alako poztazuntxo bategaz biotzean.

Unetxo bat garenean, beatz puntetan a bere, Miren alaba zaarena sartzen da eskaratzean: "Aita gaisoa...!" Eta, krask artaziakaz. Joskura batzuk gero, ziri, zara, eta aor prakak aspildurak artuta.

Ordubete garenean bariro, goizaldeko ordu bietako oilarak kukurukuka eragoiola, Katalin, alaba gazteena, eskaratzean sartu zan a bere, beti beatz punten ganean, eta artaziak eskuetan zituzala: "Aita gaisoa...!" Eta, krask, artaziakaz. Joskura batzuk gero, aisti, sasta, eta aor aita gizagaisoaren prakak aspildurak artuta.

Eta etxe guztia lo egon [illegible] zozoa basotik kantetan asi [illegible]

Baña, zozoa kantetan [illegible] gi zanean, eskaratzetik [illegible] ostean, praka aek soñean [illegible] zanean... ai, an izan ba'[illegible] lez eginda, begietan bere [illegible] duala geldituko ziñeen, [illegible] gaisoa! Iru bidar ain onon [illegible] niko prakak soñean zituzan [illegible] egoan, bere oe aurean, [illegible] taia bere baizen zuriago [illegible] karobiko labea baizen zabal [illegible] eta besoak ikutu eta mikatz [illegible] an, bera ete zanentz bere [illegible] unka, ala amesetan ete [illegible] eginik Prakak, bere praka [illegible] launetara bere ez yakozan [illegible] Miarritz'en, erdi biloisik [illegible] ñoa artzen ibilten diranen [illegible] minteren bat zirudian, [illegible] Ahezkoa'n bere praka luzeagoak [illegible] bilten dabe, eta atxiñako [illegible] baten eduko eginda egoan [illegible]

Kepa zorigaiztokoak, beste [illegible] lentureak) arturik, ocan [illegible] izan eban. Ezteguetako [illegible] bearean, purgea iruntsiten [illegible] tziozko saldea edaten eragoan [illegible] eban iru egunez. Eta "Dantzari" Doniane'ko osagile izana [illegible] zan eta, lanik asko izan [illegible] arek Kepa gaisoa eriotzatik [illegible]

Joane, Miren eta Katalin [illegible] ko atera barik egon ziran [illegible] tzutan. Eta Elixabet jostuna [illegible] arezkero ez eban Alkate Jaun [illegible] karik josi.

Bizkayeratik [illegible]

GARO'TAR BERNARDO.

ERRIJETA

ONDAROA

EUZKEL-IXENAK. — Tobal [illegible] da, Mirena ixenakaz ugutzau [illegible] abarieta'tar Lon eta Arizabalaga'tar Agurtzane'k ixan daben [illegible]

Atama-bitxi Arantzamendi [illegible] dida eta Arizabalaga'tar Miren [illegible] ne emakumetaiko artezkaritza [illegible] ziran.

Abar, Joseba, Andoni eta [illegible] begikuak imiñi dautsez [illegible] Urresti'tar Kepa eta Mari [illegible] Miren Iñake "Iramategi-bar" [illegible] ko senar-emastien semetxuak [illegible]

Atama-bitxi Arizabalaga'tar [illegible] Andoni eta Arizabalaga'tar [illegible] aberizale gastiak ixan zaran [illegible]

Atsegiñen idazten dogun [illegible] euzkel-ixenenak ixaten dira [illegible] be euzko-basetxetakuak dira [illegible] ko-basetxetako umetxuei [illegible] Manolita-eta entzutian gure [illegible] tan min dagi. Ostera euzkel- [illegible] ko umetxubei euren abizenen [illegible] jen ixenekaz detutian otsi [illegible] egiten dabe geure entzumen [illegible]

Zorijonak, ba, ume bijon [illegible] atama-bitxijei.

ARANTZUBA. — Aspaldi [illegible] itxasoratzen gure arantzaliak [illegible] tako aste gustijan etxian ej [illegible] telenian itxasoratu ziran [illegible] txarez eguraldi gogora [illegible] ezer bere ezeben arantzau [illegible]

ATZERTIJAK.—Igandian, [illegible] Batzoki eta Euzkeltzale-Batzar [illegible] lendakarijak batzartxu bat [illegible] an, antzertirik ez emotia [illegible]

Antzezlarijen artian etzan [illegible] pozkarija ixan, ba, euren [illegible] tengo neguko igande gustu [illegible] tzerkixunak emotia, da, [illegible] agindarijak ori erabagi [illegible] zegatik egingo eben, eta gure [illegible] egin biar, Alderdija'ren onen [illegible] go da-ta.

Igandian ixango dira, ba, [illegible] nian egiteko ziranak: "Negra [illegible] zan atsua" eta "Neskame [illegible]

Azpeiti erbarruriko pelea

ZARAUTZ'KO PARTIDUARIAK.—Uste gendun Pelo'k zula igesitako igandez Cinema tokian jokatu zan partiduan baña ez degu izpariñgi onetan [illegible] si. Zarauztarak eta azpeitiarrak [illegible] zuten. Aregi ta Aizpurua [illegible] erez-irabazi zuten. Zendoya [illegible] 'tantotan geratu ziran.

Partidu ori irabazita [illegible] txapelketa ataratzeko zuzen [illegible] dutela esan liteke.

IGANDEKO PARTIDUAK- 'ko Ikusteder pelota-toki [illegible] katuko dute Zendoya anaya [illegible] 'ko Elias ta Ondaru'ren aurka [illegible] ko amaikak eta erditan [illegible] izango da. Sarerak beti bezela [illegible] gizonezkoentzat. Emakumezkoen [illegible] duan jun litezke.

Zestua'n.—Zestuar Barena [illegible] zarauztar Aregi ta Aizpurua [illegible] ka jokatuko dute.

Zarauztarak partidu au irabazi [illegible] dute txapelketa berentzat [illegible] la beriz igandeko bi bikoteak [illegible] du egiten dira puntotan.

Biyar ta etsi ere partidu [illegible] emango degu.

Pelo